

Getxo >MEETING<



Apiliaren 25ean Horrela aktibatzen da zure kontaktu-sarea

Pentsatu al duzu noizbait ea nondik datozen zure bezeroak? Askotan kontaktu bat izaten da. Edo kontaktu baten kontaktua.
Hori dela eta, garrantzitsua da ondo jakitea zein handi den zure sarea.

Aurrekoetan Getxo MEETING saioetan aztertu ditugu askotariko arrazoiengatik ezagutzen dituzun eta zure gizarte-ingurua osatzen duten pertsonak. Eta idatziz jasota utzi ditugu ateratako ondorioak. Zertarako? Konturatzeko garrantzitsua dela pertsonen arteko harremanak elikatzea. Konfiantza sortzen duzulako eta, hortaz, zuk ezagutzen dituzun pertsonak ere konfiantza izan dezaketelako zuk egiten duzun horretan.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:



Honako honetarako izango zaizu baliagarria:

- Jakiteko garrantzitsua dela beste pertsona batzuek jakitea zertan aritzen zaren.
- Merkataritza-lana errazteko eta “ate hotza” deritzon merkataritza-lana “leuntzeko”.

Izan ere, zure sarea honako honetarako ere izango zaizu lagungarria:

- Bezero posibleen beharrianak entzuteko, bestela ezingo zenituzkeenak identifikatu.
Zu gomendatu zaitzaten, edo aukeren berri eman diezazueten.

Zein da zure sarea? Arkatza eta papera hartu eta mapa mental bat egiten hasi:

- Lankide ohiak
- Enpresa hornitzaileak
- Prestakuntza eta ikasketetako kideak eta irakasleak.
- Bezero posibleak, aurrekontua onartu ez zizutenak.
- Familia, zure familiaren lagunak, zure familiaren familia.
- Enpresa laguntzaileak, antzeko lanetan aritzen direnak eta osagarriak direnak.
- Lagunak, zure lagun senideak, zure lagunak.
- Boluntarioak: Elkarrekin edo ongintzako erakundeetan egindako lanagatik ezagutzen dituzun pertsonak.
- Zure kirol-, arte- edo autozaintza-zaletasunengatik ezagutzen dituzun pertsonak.
- Hurbileko sarea: Ikusi ohi dituzun zure auzokoak, bizilagunak edo ohiko saltokietakoak. Edo, umerik izatekotan, ikastetxearen inguruko pertsonak.

Txakurra 22:00etan ateratzen duzunean ere ezagutu dezakezu jendea!!

Ikusten duzunez, gutxien espero duzun tokietan daude aukerak.

Funtsean, saioan konturatu gara uste duguna baino zabalagoa dela sarea. Horrez gain, ikusi dugu garrantzitsua dela harreman berriak sortzea baina funtsezkoa dela lehendik daudenak zaintzea. Badirudi ezetz, baina agian zure bizi sozialerako giltzarri diren pertsonekin galdu zenuen kontaktua pandemian. Eta baliteke zure negoziarako ere

giltzarri izatea. Kontua ez da etengabe zure lanari buruz aritzea hizketan, baina gutxienez bakoitzak zertan egiten duen lan jakitea garrantzitsua da aukera gehiago izateko.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:

